

Lehen aldiz, XVI. mendeko dolare bat osorik eraberrituko dute Igartubeiti baserrian

Ezkio-Itsasoko eraikinaren berreskuratze lanek datu interesgarriak azaldu dituzte

Ezkio-Itsasoko Igartubeiti baserriaren eraberritze lanak oso baliagarriak gertatzen ari dira. Ikerketa lanek oso datu interesgarriak utzi dituzte agerian ikuspegi arkitektoniko zein arkeologikotik. Baserriaren

oinarrizko egitura gordetzeaz gain, lehen aldiz XVI. mendeko dolare bat osorik berreskuratze moduan da talde teknikoak, Koruko Aizarna Gipuzkoako Diputazioko Kultura diputatuak atzo azaldu zuenez.

Ondorioz, dolarearen funtzionamendua ezagutu ahal izango da estrainekoz. Baserria barrutik eta kanpotik apaintzeko fasea hasiko da orain, eta ondoren bisitaldiak hartzeko zabalduko da Igartubeiti.

Jon Eskisabel / Donostia

KORUKO AIZARNA Gipuzkoako Diputazioko Kultura diputatuak komunikabideak bildu zituen atzo Ezkio-Itsason, Igartubeiti baserriaren eraberritze lanetako lehen fasearen emaitzak azaltzeko. XVI. mendean eraikitako baserria da Igartubeiti. XVII. mendean eraldatu zuten, antzeko eraikin askorekin egin zuten bezala, baina jatorrizko eraikuntzaren zabalpen gisa. Hortaz, egurrez egindako jatorrizko egitura ia osorik gordetzen du.

Aizarnak adierazi zuenez, ikerketa lanek agerian utzi dute baserria gordetzearen garrantzia. Azterketa arkitektonikoak garai hartako eraikuntza metodoak ulertzeko datuak eman ditu. Orobat, egituran aurkitutako arrastoen bidez XVI. mendeko dolarea berreraikitze nahiakoa dokumentazioa bildu da. Horrek duen garrantzia azpimarratu zuen Aizarnak. «Esan behar da gaitasuna dugula, lehen aldiz historia modernoan, horrelako ezaguerriak dituen dolare bat berreraikitze», esan zuen.

Bestalde, dokumentazioaren azterketak baserriko bizilagunen biografiari eta bizimoduari buruzko datu interesgarriak eskaini ditu. Halaber, lan arkeologikoak agerian utzi du *etxolako fondo* esaten zaion gela bat, oraindik zehazterik ez dauden egitura mota ezberdinek inguratuta.



ENRIQUE TRUCHUELO

Ezkio-Itsasoko Igartubeiti baserria, eraberritze lanak hasi aurretik.

Dolarearen funtzionamendua

Igartubeiti baserriaren eraberritze lanak 1993-94an hasi ziren, barrukoaren garbiketa eta arrailadurak zituzten hormen sendotzearekin. Baserriaren irautea bermatu ondoren, egitura sendotzeko proiektu arkitektoniko bat idazteari ekin zion Euskal Herriko arkitektura tradizionalan aditua den talde teknikoak. Egitura sendotzeko lan fasea amaitu da, eta baserriaren oinarrizko bana-

keta berreskuratu da. Hari esker ezagutu dira datu berriak egurrezko eraikuntza handien azpiegiturari buruz.

Dolarearen oinarrizko azpiegitura berreskuratzearen garrantzia nabarmendu zuen Aizarnak. Izan ere, osorik eraberritzen den lehen dolarea izango da Igartubeitikoak, eta behingoz aukera izango da dolarearen funtzionamendua ezagutzeko. Orain arte baziren dolare zatiak Gipuzkoako beste zenbait baserrian, baina osorik ez izateak eragozten zuen haien

funtzionamendua zehaztea. Igartubeitikoak datuak emango dizkigu sagardo ekoizpenak ekonomiarako zuen garrantziaz eta garai hartako bizimoduaz.

Hurrengo lan fasean, eraikuntzaren barruko eta kanpoko apaintetari ekingo diote, eta ondoren zabalduko da bisitak jaso ahal izateko. Lehen fasean aritu den talde berak eramango du aurrera bigarren faseko proiektua. Baserria zehatz-mehatz eta xehetasunik txikienean berreskuratze asmoa dute.